

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0123	Ezinduentzako aparkaleku txartela
---	---------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Ezintasuna edo mendekotasuna duten Pertsonentzako Aparkaleku Txartela, horretarako erreserbatuta dauden lekuetan aparkatzeko balio duena.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatuta dagoen pertsonak edo bere lege ordezkariak. Onuradunak ezintasun fisiko edo psikiko larria izanik, Foru Aldundiaren Balorazio eta Orientazio Unitatearen aldeko irizpena izan beharko du mugikortasunaren atalean, 7 puntukoa gutxienez, baremoaren arabera.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E088 Ibilgailua aparkalekua uzteko ezinduentzako txartelaren eskabidea](#)
- [E106 Dokumentu zerrenda ezinduentzako aparkaleku txartela eskatzeko](#)

Gizarte Segurantzako Institutu Nacionalaren ezintasun iraunkorrari edo ezintasun osoari buruzko ebazpena, izanez gero.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Posta arrunta:

- Udaletxeko posta arrunta
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [50/2016 Dekretua, martxoaren 22koa, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duena](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu
2. Erregistratu eta kopia interesatuari eman.
3. Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA) bidali
4. BFaren txosten teknikoa jaso
5. Interesatuari jakinarazi
6. Aparkaleku txartela eman, horretarako argazki bat ekarri beharko du.
7. Onuradunen zerrenda eguneratu

NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK

Aparkaleku txartela, orokorrean, 5 urtez behin berriztatu beharko da Gizarte Ekintza Sailan.